

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2018/2019 ikasturtea

**LITERATURA HERIOTZARAKO HEZKUNTZA LANTZEKO TRESNA
MODURA: *JAKES ETA HERIO* LIBURUAREN KASUA**

Egilea: Paula Calcedo Roda

Zuzendaria: Javier Rojo Cobos

Leioan, 2019ko maiatzaren 26an

Eskerrik asko Alazne eta Encar zuen laguntza eta pazientziagatik.

Eskerrik asko Javi zure laguntza eta orientabideagatik.

A U R K I B I D E A

Sarrera	5
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: Heriotza eta gizakion arteko erlazioa	6
1.1. Heriotza gure gizartean	6
1.2. Heriotza psikologiaren ikuspuntutik begiratuta	7
1.3. Heriotzaren pedagogia	10
1.3.1. Heriotzarako Hezkuntzaren beharra	10
1.3.2. Heriotzaren tabua eskolan.....	12
1.3.3. Heriotzaren didaktikaren inplementazioa	12
1.4. Heriotza haur eta gazte literaturan	14
1.4.1. Motak	15
2. Metodologia	16
3. Lanaren garapena: Biblioterapia eta <i>Jakes eta Herio</i> ipuinarean analisisa	16
3.1. Bilioterapia	17
3.2. Ipuinaren azterketa: <i>Jakes eta Herio</i>	19
4. Ondorioak	25
5. Erreferentzia bibliografikoak	25

ERANSKINAK

1. eranskina: Burua moztuta duen oiloa	29
2. eranskina: Pertsona baten gainean arrautzak jartzen dituen eltxo erraldoia	30
3. eranskina: Ama hilaren irudia	31
4. eranskina: Heriotza agertzen den lehenengo marrazkia	32
5. eranskina: Hari gorria moztuta	33
6. eranskina: Lanaren laburpena	34

LITERATURA HERIOTZARAKO HEZKUNTZA LANTZEKO TRESNA MODURA: *JAKES ETA HERIO* LIBURUAREN KASUA

Paula Calcedo Roda

UPV/EHU

Gizarte-zientzien esparruan heriotzak jasotzen duen ikerketa maila oso urria da eta, ondorioz, gaiarekiko dagoen informazioa, mugatua. Hori dela eta, lan honek informazio hori hedatzeko eta kontzientzia egiteko muina du eta literaturari, lanketarako tresna erabilgarri gisa, atea irekitzea bilatzen du. Hori lortzeko, heriotza soziologia, psikologia eta pedagogiaren ikuspuntuetatik ikertzen da online bidezko aukeraketa zehatzak eginez Euskal Herriko Unibertsitatearen katalogoaren, Google Scholar-eko bilaketa zerbitzuaren eta JSTOR eta SciELO liburutegi digitalen bidez. Lan hau bere helburuekin bat datorren biblioterapia mota definitzen saiatzen da eta, gainera, *Jakes eta Herio* haurrentzako liburua helburu hauetarako erabilgarria den aztertzen du. Honek, liburu batek heriotzaren gaia hurrekin lantzeko aproposa izateko beharrezko dituen ezaugarriak deskribatzea baimentzen du, aukeratutako ipuinak betetzen ez dituenak.

Heriotza, literatura, biblioterapia, Heriotzarako Hezkuntza, Lehen Hezkuntza

Existen pocos estudios sobre la muerte en el ámbito de las ciencias sociales y este trabajo pretende difundir y ampliar la información que se tiene al respecto. El objetivo de este trabajo es concienciar sobre la necesidad y la importancia de la Educación para la Muerte y abrir la puerta a la literatura como herramienta para trabajarla. Para ello se estudia la muerte desde las perspectivas de la sociología, la psicología y la pedagogía mediante la selección de estudios pertinentes del catálogo online de la Universidad del País Vasco, el buscador Google Scholar y las bibliotecas digitales JSTOR y SciELO. En este trabajo se trata de definir el tipo de biblioterapia que sería compatible con los objetivos del mismo y se estudia, además, el libro infantil *Jakes eta Herio* como posible libro a utilizar. Esto permite definir las características necesarias para que un cuento sea apropiado para trabajar el tema de la muerte con los niños, características no cumplidas por el texto elegido.

Muerte, literatura, biblioterapia, Educación para la Muerte, Educación Primaria

There are few studies about death in the field of social sciences and this work tries to spread and widen the information that exists about it. The aim of this work is to raise awareness of the need and importance of Death Education and to open the door to literature as a tool to work on it. To do so, this work studies death from the point of view of sociology, psychology and pedagogy by the selection of relevant studies from the online catalogue of the University of the Basque Country, the search engine Google Scholar and the digital libraries JSTOR and SciELO. This work tries to define the type of bibliotherapy that would be compatible with its goals and studies the children's book *Jakes eta Herio* as a possible book to use. This makes it possible to define the characteristics necessary for a book to be appropriate to work on the topic of death with children, characteristics the mentioned book does not fulfil.

Death, literature, bibliotherapy, Death Education, Primary Education

Sarrera

Lan hau Lehen Hezkuntzara bideratuta dago. Honen bidez, alde batetik, Heriotzarako Hezkuntzaren beharra aztertu nahi dugu. Horretarako, lehenik eta behin, heriotza eta gizakiaren arteko erlazioaren ulermen holistikoa bilatzen dugu heriotza soziologiaren, psikologiaren eta pedagogiaren ikuspuntutik aztertuz. Beste alde batetik, behin Heriotzarako Hezkuntzaren beharra eta garrantzia egiaztatuta eta bere inplementazioaren oinarriko printzipioak zehaztuta, heriotza eta literaturaren arteko erlazioa aztertuko dugu, literatura, biblioterapiaren bidez, heriotza lantzeko tresna modura proposatuz. Amaitzeko, heriotzari buruz hitz egiten duen *Jakes eta Herio*¹ (Bowley, 2019) haurrentzako ipuin irudiztatua aztertuko dugu, lanean zehar landutako datu, teoria eta printzipioekin bat egiten duen zehazteko eta, beraz, heriotzaren gaia lantzeko aproposa den edo ez ondorioztatzeko. Honek, liburu batek heriotzaren gaia hurrekin lantzeko aproposa izateko beharrezko dituen ezaugarriak deskribatzea baimendu digu.

Heriotzaren gaia tabu bat izanda, oso ikerketa gutxi egin dira haren inguruan gizarte-zientzien arloan (De Miguel, 1995; Herrán eta Cortina, 2007). Hori dela eta, lan honek bere “harri-koskorra” ekartzen du gai honen jakintza eta hedapenerako. Lanak Heriotzarako Hezkuntzaren eta Heriotzaren Pedagogia baten beharra azaleratzen du, eta literatura eskoletan heriotzaren tabuarekin amaitzeko eta gaia lantzeko tresna modura proposatzen du, beste batzuekin batera, heriotza lantzen duen proiektu pedagogiko baten barruan egongo litzatekeela ulertuz. Haren garrantzia Hanán Díaz-en (1996, Sáiz Ripoll-ek, 2010) hitz hauekin labur dezakegu:

Leer sobre la muerte es vivirla por anticipado, es crecer un poco más internamente para estar preparados para su venida. Pero también es el espacio para confrontar nuestras propias experiencias y descubrir en los personajes de ficción que nuestras emociones, que nuestros sentimientos ante ese hecho, son también los de otras personas. (13. or.)

Lan honen xedeak hezkuntzaren bidez tabu honekin amaitzearen garrantziaz eta beharraz kontzientziatzea eta literatura heriotzaren gaia lantzeko tresna bezala erabiltzeari atak irekitzea dira, ikuspegi hau ikasgeletan modu ofizial batean inplementatzeko beste ikerketa batzuk egitea ezinbestekoa dela argi izanda. Helburu hau lortzeko eta lan hau aurrera eramateko, lehendabizi, bibliografiaren bilketa, ebaluazioa eta aukeraketa egin da. Ondoren, gogoeta-prozesu bat egon da, kontzeptuak erlazionatu dira eta lanean txertatu egin dira.

¹ Idazlea: Tom Bowley; Marrazkilaria: Natalie Pudalov; Itzulpena: Garazi Arrula Ruiz.

² Eros eta Thanatos: Bi elementu hauek betera agertu dira askotan historian zehar antonimo edo kontrako modura, bizitza

Amaitzeko, ikertutako guztia *Jakes eta Herio* liburua aztertzeke oinarri modura hartu da, hau da, berrikusketa bibliografikoak liburua aztertzeke arrazoiak eta orientabideak ematen ditu.

1. Esparru teoriko eta kontzeptuala: Heriotza eta gizakion arteko erlazioa

Esparru teoriko eta kontzeptual honetan heriotza eta gizakiaren arteko erlazioaren ulermen holistikoa bilatzen dugu, arreta berezia jarriz hezkuntzan eta haur eta gazte literaturan. Horretarako, orokorretik zehatzera jo dugu, heriotzaren kontzeptua gure gizartean nola ulertzen den eta izandako bilakaera aztertuz lehendabizi, eta heriotzak psikologiaren ikuspuntutik dituen eraginekin jarraituz. Horren ostean, eskolan heriotzaren inguruan eraiki den tabuaz eta heriotzaren pedagogiaz arituko gara. Amaitzeko, heriotza Haur eta Gazte Literaturan nola agertzen den aztertuko dugu. Puntu guzti hauek erlazionatuta daude, elkarreragina daukate, eta gure azkenengo helburua lortzeko ezinbestekoak dira. Hau da, tabu honekin amaitzearen garrantzia eta beharra ulertzeko eta literatura heriotzaren gaia lantzeko tresna bezala erabiltzearen aukera funtsatzeko ezinbestekoak dira.

1.1. Heriotza gure gizartean

Heriotzaren inguruko hausnarketarekin hasteko, lehenik eta behin, ezinbestekoa ikusten dugu heriotza gure gizartean eta gure kulturen nola ulertzen den eta nola kudeatzen den aztertzea. Horretarako, bereziki Espainia mailan heriotzaren sozializazioan eman diren aldaketak eta gaur egungo egoera laburki azaltzen saiatuko gara. De Miguelek (1995) oso argi hitz egiten du gaur egun, beraren hitzetan, gizarteko tabu handiena den gai honi buruz. Berak azaltzen duenez, mundu kristauan, XV. mendera arte existentzia etapetan banatzen zen. Heriotza eta Azken Judizioaren artean bizitza erlatibo bat zegoen. Pertsonak ez zuten haien existentzia heriotzarekin amaitzen, honek Azken Judizioaren egunera arte jarraitzen zuen eta hori zen haien bizitza osoko irudi bat ikusteko gai ziren momentua, ondo eta gaizki egin zutenarengatik epaituak izanez. XV. mendetik aurrera, ordea, bizitza osoko epaiketa heriotzaren momentuan gauzatzen da. Ondorioz, heriotzaren momentuan bakoitzaren biografiaren irudi bat izatearen ideia mesedetzen da; heriotzarekin pertsonak haien benetako izatea ezagutzen dute. Europan, XVIII. mendera arte, pertsonak beren heriotzaren ideia ohituta zeuden. Heriotza hil-hurren zegoen pertsonak prestatzen zuen erritu publiko bat zen: jendea bere ohearen inguruan batzen zen, baita haurrak ere. Ez zen, beraz, ezkututzen zer zerbait. Gaur egun, ordea, heriotzaren trataera asko aldatu da. Heriotza (bakoitzarena eta besteena) tabu bat da. Gure gizarte postmoderno eta hedonistan heriotza ezkutatu egiten den zerbait da. Lehen etxean gertatzen bazen senitartean, orain, normalean, bakardadean gertatzen da ospitale batean, hiltzearen erriturik edo zeremoniarik gabe. Honek garrantzi handia dauka,

izan ere, Gala et al. (2002) bi momentu ezberdintzen dituzte Mendebaldeko heriotza bizitzeko moduan: bata bere instituzionalizazioaren aurretik, non heriotzak ez du beldurrik ematen existentziaren prozesu naturalaren parte bezala onartzen delako eta bestea, 1930etik aurrera gutxi gorabehera, non ospitalea (erakunde moduan) hiltzeko lekua bihurtzen da. Azken bi mendeetan, gainera, ardura bakoitzaren heriotzan egotetik besteen heriotzan egotera pasatu da. Hau da, besteen heriotzak geureak baino gehiago kezkatzen gaitu. Hau, debekatutako gai bat izatearekin lotuta, batzuetan hiltzen ari den pertsonari hau bera ezkutatzera eramaten gaitu. Gaur egun, heriotzan pentsatzea gaixo-esperientzia bat bezala ikusten da. Gainera, bakoitzaren heriotza gogorarazten duen edozer ekiditen da. Ondorioz, ez gaude heriotzean gizarteratuak. Ez dugu heriotzean pentsatzen, ez dugu berataz hitz egiten eta ez dugu hurbiletik bizitzen, orokorrean, nahiko nagusiak garenera arte. Heriotza tabu bat bihurtzen ari da bere fase guztietan; ez dira errituak egiten hil-hurren dauden pertsonen inguruan, hileta gutxiago daude pertsonak erraustuak izatea hautatzen dutelako eta, gainera, ez da dolurik egiten. Hildakoak intimitatean gurtzen dira. Gizakiok hilko garaela dakigun espezie bakarra gara, baina hilezkorak bagina bezala bizi gara, gure heriotzean eta besteen heriotzean pentsatzea ekiditen baitugu.

1.2. Heriotza psikologiaren ikuspuntutik begiratuta

Gizarte modura heriotzaren inguruan daukagun pertzepzioa aztertu ondoren, heriotzak psikologiaren aldetik nola eragiten gaituen eta dituen ondorioei buruz arituko gara orain. Heriotzaren aurrean, gaur egun gure gizartean ematen diren erantzun ohikoenak beldurra eta antsietatea dira. Hala ere, pertsona bakoitzak modu ezberdin batean pairatuko ditu sintoma hauek, bakoitzaren istorio pertsonal eta kulturalarekin eta aldaketei eta banaketei aurre egiteko daukagun estilorekin oso loturik baitaude (Gala et al., 2002). Hau ez da heriotzari aplikagarria bakarrik; dolu prozesuak edozein motatako galera baten aurrean ematen dira eta guztiz normalak eta espero izatekoak dira (Sanz Andrea, 2018). Aipatutako beldurra eta antsietatea aztertzeko orduan garrantzitsua da bakoitzaren heriotza eta besteen heriotza ezberdintzea, prozesuak ez baitira berdinak.

Norberaren heriotzaren aurrean bi prozesu ezberdintzen dira: agonia eta hiltzea bera (Gala et al., 2002). Izan ere, agoniaren prozesuak (gertatuko denaren ideia modura, ez prozesua berez) eragin handia dauka hilzorian dagoen pertsonak heriotzaren aurrean sentitzen duen beldurrean (McVan, 1987, Gala et al.-k aipatua, 2002). Bizitzaren azken etapa honetan beldurra modu hauetan nabarmentzen da autore ezberdinen arabera:

<ul style="list-style-type: none"> - Agoniaren prozesuaren beldurra. - Egoeraren kontrola galtzearen beldurra. - Bere heriotzaren ondoren ahaideei gertatuko zaienaren beldurra. - Gainerakoen beldurraren beldurra. - Isolamenduaren eta bakardadearen beldurra. - Ezezagunaren beldurra. - Izan duen bizitzak inongo esanahirik izan ez duen beldurra. <p>(Leich, 1982, Gala et al.-k aipatua, 2002)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gorputz minaren beldurra. - Desitxuratzearen beldurra. - Pertsona-minengandik banantzeraren beldurra. - Nahi ez den bakardadearen beldurra. - Izateri uztearen beldurra. <p>(Arranz et al., 2003, Cantero García-k aipatua, 2013, 432. or.)</p>
---	---

Honen inguruan, zenbait autorek gaixo terminalengan ematen diren jarrera eta emozio aldaketak etapatan sailkatzen dituzte. Guk, ezagunenak diren Kübler-Ross-en bost faseak aztertuko ditugu laburki, edozein dolu prozesura aplikagarriak direnak eta, beraz, bai hiltzorian dauden pertsonak bai norbait galdu dutenek bizitzen dituztenak. Hala ere, faseak ez dira momentu berdinean gertatzen; hil-hurren dagoen pertsonarentzat heriotzarekin amaitzen da guztia, baina ahaideen prozesua jarraitu egiten du (Gala et al., 2002). Esan dugunez, pertsona bakoitza ezberdina da eta, ondorioz, fase hauen iraupena aldakorra da. Horrez gain, ohikoa da faseetan aurrerantz eta gero atzerantz egitea. Hala ere, dolu prozesua guztiz naturala eta beharrezkoa bada ere, badaude pertsona batzuk ez dutenak prozesua jarraitzen eta faseetako batean blokeatuta gelditzen direnak; pertsona hauek laguntza behar izango dute haien dolu prozesua garatzeko (Sanz Andrea, 2018). Hona hemen faseak (Kübler-Ross, 1969, BBC Mundo-k aipatua, 2018):

1. Ukapena: errealitatea ukatzen da mingarriega delako.
2. Haserrea: fase honetan ohikoak dira amorrua eta gaitzondoa. Errudunak bilatzen dira heriotza atzeraezina delako frustrazioaren aurrean.
3. Negoziazioa: pertsonak heriotzaren errealitatea aldatu daitekelarekin amets egiten dute. Ohikoa da euren buruari “zer gertatu izango zen hau egin izan banu?” moduko galderak egitea.

4. Depresioa: tristura sakona eta huts sentsazioa dira fase honetako ezaugarriak. Izenak ez dio depresio klinikoari erreferentzia egiten, naturala den tristurarekin erlazionatutako emozio multzo bati baizik.

5. Onarpena: errealitatea onartzen da.

Küber-Ross-ek etapak horrela aurkezten baditu ere, badaude ikertzaile asko heriotzaren inguruko emozioak etapa bereizgarrietan agertzen ez direla argudiatzen dutenak. Haien esanetan dolu prozesua “errusiar mendi” baten modukoa da, emozioak bat-batekotasun batean agertzen dira eta zaila da hasiera bat eta amaiera bat zehaztea (Cantero García, 2013, 431. or.).

Jarraitzeko, haurretan arreta berezia jarriko dugu, alderdi hau bereziki esanguratsua baita lan honetarako. Haurtzaroko doluan haurren adinak era nabarmenean baldintzatzen du heriotzaren esanahiari buruz duen jakintza edo kontzientzia (Kroen, 1996, Gabella Nicolau-ek aipatua, 2014, 12. or.). Gala et al.-k (2002) adierazten dutenez, hurrek eta nerabeek heriotzaren aurrean dituzten erantzunak jarraian azalduko dugun moduan aldatzen joaten dira. Bi urteetara arte ez dituzte berehalako erreakzio larririk aurkezten, nahiz eta, batzuetan, atsekabea nabarmendu. Hiru-lau urtetik aurrera heriotzaren beldurra agertzen hasten da (lagun-maite baten heriotzak sortuko liekeen babesgabetasunagatik gehien bat, berezko heriotza nekez onartzen baita). Haurtzaroan, heriotzak sortzen dien beldurra eta pena kontrolatzeko, jolasak sortzen dituzte. Horrez gain, jarrera aldaketak eman daitezke senide baten heriotzaren ostean, hala nolakoak: desobedientzia, agresibitatea, eskola-errendimendu txarra eta heriotzaren gaiari buruzko interes nabarmendua. Bost urtetatik hamar urtetara, ordea, heriotzaren beldurra gutxitu egiten da, izan ere, prozedura haraindikotasunez mozarrotzen da (“Zeruan dago”, “Jesus Haurrarekin dago”). Aurre-nerabearoan eta nerabearoan heriotzaren prozesu terminalaren beldurra ezartzen hasten da (mina, sufrimendua, bakardadea) eta, gutxika, norberaren heriotza onartzen da. Honen ideiak antsietatea eta melankolia sorrarazten ditu. Adin honetan, gainera, hil egin den pertsona batekin identifikazio handia ematen bada jarrera buru-eraileak eman daitezke (Caplan, 1966, Gala et al.-k, 2002). Beste alde batetik, Tizón-en (2013) Gabella Nicolau-ek aipatua (2014, 10. or.), esanetan, hauek dira haurren doluak helduenengatik ezberdintzen dituzten ezaugarriak:

- Defentsen hauskortasuna edo integrazio eza umeengan: Mina eta gatazka mentalen aurrean dituzten defentsak gutxi garatuta daude.
- Objektuen beharra.

- Kognitiboki gutxiago garatuta daude: Umeek ez dituzte esperientzia eta errekurtsio kognitibo nahikorik gertatutakoa guztiz ulertzeko.
- Afektiboki daukaten heldutasun eza: Haurrek ezin dute min bizi bat denbora luzez jasan, tristura eta poztasunaldiak tartekatzen dituzte.
- Umeen berriazko adierazpen moduak: Jokua da haien adierazpen-eremu naturala.

Psikologiaren alderdiarekin amaitzeko, logoterapiari buruz hitz egingo dugu, lan honetarako bereziki garrantzitsua eta esanguratsua den psikoterapia bat dena. Logoterapiak giza-izatearen zentzua eta gizakiek zentzu hori nola bilatzen duten ikertzen du. Frankl-en esanetan, eskola honen sortzailea, zentzuaren nahiak mugitzen du gizakia eta zentzu hori bakarra eta berezia da pertsona bakoitzarentzat. Bakoitzak berak bere zentzua bizitzan zein den aurkitu behar du eta logoterapiak, terapia erabilia, zentzu hori aurkitzen lagundu dakiguke (Morandi Balcunas, 2008). Hau oso garrantzitsua da bai prebentzio modura bai krisi existenzial baten aurrean. Hala ere, logoterapia ez da horretara bakarrik mugatzen, edozein sufimenduren aurrean, sufrimendu horri zentzu bat ematen laguntzen du ere. Psikoterapia honen arabera, gizakiak ezin du sufrimendua sahiestu, baina zentzu bat eman ahal dio. Hau guztiz aplikagarria da dolu kasuetara eta hori da, izan ere, logoterapiak lantzen duen alderdi bat (García Pintos, 1996). Psikoterapia honek erabiltzen duen tresna bat biblioterapia da eta hori da, gehien bat, lanerako bereziki garrantzitsua egiten duena. “Lanaren garapena” atalean tresna hau aztertuko dugu eta, horretan oinarrituta, ikertutako *Jakes eta Herio* literatura-lana heriotzaren gaia lantzeko aproposa den edo ez ondorioztatuko dugu.

1.3. Heriotzaren pedagogia

1.3.1. Heriotzarako Hezkuntzaren beharra

Heriotzaren alderdi sozialak eta psikologikoak aztertu ondoren, argi geratu zaigu heriotza lantzen ez den bizitzarako funtsezko gai bat dela. Gure gizarteko tabu handi honekin amaitzeko eta gure errealitatea eta, batez ere, etorriko diren belaunaldien errealitatea eraldatzeko eta hobetzeko heriotzaren pedagogia daukagu. Hurrengo lerroetan honen garrantzia hausnartzen eta azaltzen saiatuko gara. Herrán eta Cortina-k (2007) argi uzten dute Heriotzarako Hezkuntza guztiz beharrezkoa dela, heriotza ulertzea eta onartzea bete-betean bizitzeko bidea baita. Heriotza agerian jartzea, berataz hitz egitea eta gaia lantzea gizartearen bilakaerara eramaten gaitu, xede modura kontzientziaren garapena izanez:

En la medida en que la evolución humana depende del incremento de complejidad de conciencia y la superación de egocentrismo y ambas vertientes dependen del conocimiento,

consideramos que la Educación para la Muerte es una rama importante o una parte esencial del árbol que nos interesa, la Educación de la Conciencia. (Herrán eta Cortina, 2007, 6. or.)

Gaur egungo hezkuntzan garrantzi handia ematen zaie gaitasunei eta, Cantero Gacía-k (2013, 435. or.) esaten duen moduan, “Bizitzen ikastea” gaitasunen artean garrantzitsuenetarikoa bada, ardatz modura Heriotzarako Hezkuntza agertu beharko litzateke, izan ere, “quien aprende a vivir tiene que saber morir”. Hau da, heriotzean heztea bizitzan heztea da. Heriotzak bizitza orientatzen du eta heriotzaren esanahia modu esanguratsu batean ulertzean (hausnarketa pertsonalaren bitartez) modu kontzienteago batean biziko gara, egoztrismoa alde batera utziz. Hau lortzea, ordea, ez da erraza. Gure gizartearen historia hurbilean egon diren bi tabu nagusiak sexua eta heriotza izan dira. Gaur egun sexuaren tabua guztiz gaindituta dagoela esan ezin badugu ere, haren inguruko lanketa bat egiten dela baieztatu dezakegu. Heriotzarekin, berriz, ez da berdina gertatzen heldutasun edo kontzientzia maila altuagoa behar delako hau gainditzeko. Hori dela eta, oso zaila egiten da gai honen inguruan haurren beharrak asetzea eta haien eskaerei erantzutea, helduak berak ez baitu tabua gainditu (Herrán eta Cortina, 2007).

Hezkuntzari esker tabua gainditzen badugu bere errealitatea ezagutzeko gai izango gara eta orduan konturatuko gara “que el sexo y la muerte, que representaron siempre los nudos psicológicos más graves de nuestra vida, garantizan por el contrario la riqueza de la especie humana” (R. Rossellini, 1977, 65. or., Herrán eta Cortina-k aipatua, 2007, 3. or.)². Horrez gain, Heriotzarako Hezkuntzak errealitatera egokitzen laguntzen gaitu eta gure mugak onartzen irakasten digu, gizakiok geure beldurrei aurre egiteko eta pertsonalki hazteko daukagun beharrari erantzuna emanez (Herrán eta Cortina, 2007). Cantero García-k (2013, 434. or.) modu zehatzago batean aipatzen ditu Heriotzarako Hezkuntzak dauzkan onurak: Komunikazioa hobetzen du; eskubideen errespetua sustatzen du; baloreetan hezten du; dibertsitatea errespetatzen du; inklusioa lantzen du; parte-hartzea eta elkarrizketa bultzatzen ditu; talde-lana indartzen du; berrikuntza eta sormena errazten ditu; esku-hartze errealista, elkarreragilea eta solidarioa bilatzen du; baloreen eta jarrera baiezkorren garapena bultzatzen du; enpatiaren garapena lantzen du; gaitasun-sozialak errazten ditu; erabaki-hartzeak ahalbidetzen ditu; moldatzeko gai diren herritarrak sortzen ditu eta profesionalen

² Eros eta Thanatos: Bi elementu hauek betera agertu dira askotan historian zehar antonimo edo kontrako modura, bizitza eta heriotza irudikatzen. Mitologia grekoan Eros eta Thanatos jainkoak zituzten. Eros maitasunaren eta pasioaren jainkoa zen eta Thanatos heriotzarena. Freud-ek termino berdinak erabili zituen “bizi-irrikaz” eta “hil-irrikaz” hitz egiteko (“Eros y Thanatos”, 2009).

prestakuntza-jarraia bultzatzen du. Horrez gain, Verdú-k (2002), Cantero García-k aipatua (2013, 427. or.), hurrengo adierazten du: “una enseñanza sin muerte es la muerte absoluta de la enseñanza, porque no tratar de lo que más importa descalifica a cualquier institución sobre el saber”. Dena dela, gaur egun bizi dugun errealitatean bi arazo daude; ez dela heriotzarako hezten, Verdú-ren aipuarekin jarraituz, eta haren inguruan egiten diren esku-hartzeak ez direla oso egokiak izan. Honek jorratu nahi dugun bigarren puntura daramagu: gaur egungo egoera eskoletan.

1.3.2. Heriotzaren tabua eskolan

Aurreko ataletan ikusi dugunez heriotza gure gizarteko azken tabu handia da. Eskola gizartearen isla da eta, beraz, bertan gai honen inguruan ematen diren jarrera saihekorrak eta mitifikatzaileak eskolan ere ematen dira. Irakasleak ez daude gaien jorrotuta eta, ondorioz, ezin dute erantzun egoki bat eman ikasleen beharren aurrean. Hezkuntzaren aldaketa bat eman behar da, non Heriotza curriculumean adierazita eta finkatuta agertzen den. Gai hau erradikala da, transbertsala, hezkuntza eta bizitzaren alderdi guztietan lekua duena eta adierazten dena (Herrán eta Cortina, 2007). Orduan, heriotza hezkuntzan lekua duela argi ikusten badugu, zergatik da saihesten den gai bat? Herrán eta Cortina-k (2007) bi arrazoi zehazten dituzte: ez delako existitzen tradizio profesionalik gaiaren inguruan eta historikoki beste eremu batzuetan landu egin delako (familian, erlijioan, filosofian, tradizio kulturaletan, errituetan, norbanakoan). Hala ere, azken honek ez du esan nahi eremu horietan heriotzaren lanketa bat egiten denik, mendebaldeko gizarteek, azaldu dugunez, heriotza beldurrez eta ezezkotasunez estali dute eta, ondorioz, guztiz baztertuta geratu egin da. Ildo beretik jarraituz, autore berdinek, arazoaren mamia urteetan zehar transmititu egin den ikasketa desegoki bat dela ondorioztatzen dute. Arazoaren bi eragile nagusi daude; alde batetik beldurra, oso handia bada bizitzatik urruntzen gaituena eta, beste alde batetik doktrina, autoezagutza saihesten duena. Hori dela eta, era egoki batean prestatuta ez dauden hezitzaileek edo hausnarketa sakon bat egin ez dutenek edo, are gehiago, hezkuntzaren profesionalak ez diren pertsonak, zeharka eta modu desegoki batean hezten dituzte hurrengo belaunaldiak. Herrán eta Cortina-k (2007) idatzitako esaldi batek ondo laburtzen du esandakoa: “Todo esto repercute en el adulto, que tiende a realimentar, sin la riqueza o el acierto preciso, a la siguiente generación, de modo que la espiral evolutiva no se eleva, no levanta cabeza”(7. or.).

1.3.3. Heriotzaren didaktikaren inplementazioa

Heriotzarako Hezkuntzaren garrantzia eta gaiaren inguruan dauden arazoak aztertu ondoren, hezkuntzan eman behar diren aldaketei eta Heriotzaren didaktika inplementatzeko beharrezkoak diren pausuei buruz hitz egingo dugu. Azaldu dugunez, Heriotzarako Hezkuntza ez dago landu behar den arlo bat bezala zehaztuta³, baina zeharkako gai modura agertu beharko litzateke curriculumean. Horrez gain, bere elementu guztiak ondo zehaztuta eta arlo guztien artean bananduta agertu beharko lirateke curriculum orokorretik kanpo ez gelditzeko (Cantero García, 2013, 432. or.). Heriotzarako Hezkuntza horrela ulertzen dugu:

Como un conjunto de acciones formativas adecuadas, encaminadas a favorecer en los profesores un mayor conocimiento, de manera que repercuta en un cambio conceptual o en una modificación importante de los esquemas afectivos y cognoscitivos asociados a la educatividad sobre la muerte (Herrán, 2011, 52. or., Cantero García-k aipatua, 2013, 428. or.).

Eta:

Conceptuamos la Educación para la muerte como un ámbito y un proceso basado en la comprensión e integración de la muerte en la comunicación educativa y la formación de educadores (familiares, profesores, orientadores, etc.), para contribuir desde su desarrollo a la evolución de las personas como integrantes y cooperadoras de la humanidad, desde propuestas didácticas adecuadas (Herrán eta Cortina, 2007, 11. or.).

Ondorioz, irakasleen hausnarketa bilatzen da haien irakaskuntza ondo oinarrituta egon dadin eta (auto)formakuntzaren bitartez heriotzak naturalki dagokion lekua har dezan (Herrán eta Cortina, 2009, Cantero García-k aipatua, 2013, 435. or.). Hala ere, zehaztu beharra dago aldaketa hau hezkuntza-talde osoan eman behar dela, diziplinarteko talde baten bidez bakarrik lortuko dugulako proiektu egoki bat aurrera eramatea; heriotzaren inguruko jakintza holistikoa bermatzen duena, beldurra desmitifikatzen duena eta errefortzua eta laguntza ematen duena (Onira, 2003, Cantero García-k aipatua, 2013, 426. or.). Horretarako, ikasten jarraitu nahi duten eta irakasle modura dituzten gaitasunak hobetzeko nahia duten hezkuntza-profesionalak behar ditugu. Horrez gain, gurasoen eta haurretan eragina duten beste pertsonen inplikazioa eta prestakuntza beharrezkoa izango litzateke (Cantero García, 2013, 433. or.). Hau argi utzita, didaktikaren alderdi zehatzagoz arituko gara orain. Gogoratu beharra dago ez dela existitzen irakasleek jarraitu beharreko “errezeta” modukorik, baina kontuan hartu beharreko eta jarraibide modura erabili daitezken zenbait faktore azaleratuko ditugu.

Lehenik eta behin kontuan izan behar dugu Heriotzarako Hezkuntzak bi funtzio nagusi dituela; prebentiboa eta paliatiboa. Batak egunerokotasuneko komunikazio didaktikoari erreferentzia egiten dio (Herrán eta Cortina, 2008, Cantero García-k aipatua, 2013, 428. or.)

³ “La Pedagogía no se ocupa de educarnos convenientemente en este punto; la sociedad, la familia..., nadie lo hace. Simplemente se confía en que sea la vida, cuando nos afecta a cada uno, la que nos presente esa cruda faceta de la misma”(Orellana, 1999 Herrán eta Cortina, 2007-n aipatua)

eta besteak, ordea, pertsona edo talde bat hunkitzen duen heriotza bat gertatzen denean martxan jartzen den hezkuntza-ekintzari. Prebentiboan, beraz, heriotzarekin erlazionatzen den antsietatea eta beldurra bideratzen laguntzen da, hilkortasuna eskubide eta bizitzaren alderdi normal bezala onartuz (heriotzaren esanahia azaltzerakoan hizkera eufemistikorik erabili gabe, honek bere ulermena oztopatzen baitu) (Cantero García, 2013, 435. or.). Beste alde batetik, hezkuntza paliatiboan hezitzaileek ikasleen emozioak kudeatzen ikasi behar dute eta besteen dolua errespetatzen eta babesten irakatsi (Feijoo eta Pardo, 2003, Cantero García-k aipatua, 2013, 436. or.).

Heriotzarako Hezkuntza zein etapatan inplementatzen hasi behar den eta zergatik egin behar den horrela ere azalduko dugu. Herrán eta Cortina-k (2007) argi daukate arlo honen garapena Haur Hezkuntzan hasi beharko litzatekela eta, handik, beste etapetan proiektatu. Haien ondorioetan hurrengo esaten dute: “lo que en los primeros años puede observarse y sistematizarse puede ser un buen andamiaje para interpretaciones y propuestas educativas de estas edades y de niveles posteriores”. Hau da, behaketaren bidez haurrak pentsatzen, sentitzen, garatzen eta adierazten duena ulertu dezakegu eta guzti hori gure Didaktika osatzeko erabili. Gainera, Gonzalez eta Herrán-ek (2010), Cantero García-k aipatua (2013), Haur Hezkuntzan haurrek heriotzarekiko duten beldurra kanpoko eragileek transmititutakoa baino ez dela adierazten dute. Hortaz, “una Educación Infantil que mantuviera a la muerte más libre del miedo contribuiría a la formación de personas menos condicionadas, más libres, objetivas y críticas” (433. or.).

1.4. Heriotza haur eta gazte literaturan

Haur eta gazte literatura haur eta gazteei zuzendutako literatura da, hau da, gizarteak talde honetarako egokiak ikusi dituen testu literarioen multzoa da. Arnal-ek (2011) azaltzen duenez, haur eta gazte literaturak mendeetan zehar aldaketak jasan izan ditu heriotzaren trataerari dagokionez. XIX. mendean asko jorratzen zen gai bat zen baina, XX. mendean, haurren heriotza-tasaren jaitsiera handiagatik eta bizi-itxaropenaren igoeraren ondorioz, heriotzak garrantzia galtzen du eta haur eta gazte literaturatik kanpo gelditzen da. Mende honen azken-aurreko hamarkadan ordea, oso modu geldoan bada ere, egoera aldatzen hasten da. Honen arrazoia literaturaren bitartez haurrekin modu intimo batean erlazionatzen eta haien ingurunea aztertzen saiatzen diren narrazioak dira. Heriotzaz hitz egiten duten idazlan kopurua handitzen badoa ere oso gutxi dira hain gai garrantzitsu, hurbil eta pisutsu batentzako, batez ere bere kultura- eta hezkuntza-irekitasunaz harrotzen den gizarte batean. Aurreko ataletan hainbat alditan errepikatu dugunez, gizarte hedonista batean bizi gara, hau

da, arrakasta eta gozamina beste guztiaren gainetik lehenesten da eta, ondorioz, heriotzaren gaia, honen kontrakoa denez, guztiz ekiditen da. Honek, haur eta gazte literaturan isla dauka ere. Hala ere, esan dugunez, gutxinaka heriotzaren gaia gero eta gehiago jorratzen da eta, gehiagotze hau, hezkuntza-eskaera eta eskaera sozialaren ondorio dela esan dezakegu, izan ere, lan hauen edukiak didaktikoak baino ez dira.

1.4.1. Motak

Hurrengo atal honetan idazlanak heriotza motaren arabera sailkatuko ditugu. Horrela erabaki dugu aztertzen dugun gaia heriotza delako eta hau delako, gure ustez, sailkatzeko modu simple, argi eta logikoena. Arnal-en (2011) sailkapena jarraituz sei mota ezberdinduko ditugu:

- Heriotzarik ez argumentuan: Atal honen barruan heriotzaren gaian murgiltzeko hiltzen den pertsonaia bat erabiltzen ez duten lanak sartuko lirake. Normalean haur baten jakinmina da abiapuntua. Adibideak: *Estirar la pata (o cómo envejecemos)* (Cole, 1996), *Siempre te querré* (Gliori, 2000), *Regaliz* (Van Ommen, 2005) eta *El señor Muerte en una avellana* (Maddern, 2007).
- Heriotza naturala: Heriotza naturala idazlan kopuru gehienek lantzen dutena da, seguraski heriotza “leunena” delako. Gainera, heriotza mota hau, adineko pertsonekin lotzen da eta gure gizartean hauek direnez orokorrean hiltzen diren pertsonak normala da hainbeste alditan agertzea. Adibideak: *D de despedida* (Onyefulu, 2001), *Abuela de arriba, abuela de abajo* (Paola, 1994), *La Señorita Amelia* (Uribe, 1983), *El Tren* (Ventura, 2000), *Yo siempre te querré* (Wilhelm, 1992), *Un gato viejo y triste* (Zatón, 1988) eta *Gracias, Tejón* (Varley, 1985).
- Gaixotasunaren ondoriozko heriotza: Gure gizarteko errealitate batez hitz egiten du, izan ere, Espainian gaixotasuna da heriotzaren kausa nagusia. Idazlan gehienetan ez da informazioa sakonki aztertzen, ez da gaixotasunari buruzko xehetasunik ematen. Honen arrazoia lanari izaera errealista ematen dioten eta haurrek kontakisunarekin gehiegi identifikatzea edo inplikatzearagiten duten zehaztasunak alde batera usteko nahia izan daiteke. Adibideak: *El mejor truco del abuelo* (Dwight Holden, 1993), *El hilo de la vida* (Cali, 2006) eta *Para Siempre* (Durant, 2004).
- Heriotza bortitza: Heriotza bortitza modu askotakoa izan daiteke; istripu bat, ehizaren ondorioa, gerra,... Kasu hauetan, heriotza ez denean bizitzaren ondorio natural bat, ez dira honen zergatiak edo kausak iskututzen. Adibideak: *Humo* (Fortés, 2008), *Rosa Blanca* (Innocenti, 1987), *El teatro de las sombras* (Ende, 1988), *Libro de la vida/Libro de la otra*

- vida* (Vassart, 1996), *Las cabritas de Martín* (López Narváez, 1994), *Nadarín* (Lionni, 2007), *El lago de los búhos* (Tejima, 1994) eta *La muerte pies ligeros* (Toledo, 2006).
- Heriotzaren kausari buruzko aipamenik gabe: Informazio falta hau bi arrazoi izan ditzake, bata egilearen ikuspuntutik informazio hau beharrezkoa ez izatea argumentuarentzat eta, bestea, irakurlea bere inguruan gaixotasun edo heriotza seinaleak bilatzea eragingo dion informazioarekin ez agobiatzeko nahia. Adibideak: *No es fácil, pequeña ardilla* (Ramón, 2003), *El libro triste* (Blake, 2004), *La primera vez que nací* (Cuvellier, 2007), *La caricia de la mariposa* (Voltz, 2008), *Más allá del gran río* (Beuscher, 2004) eta *¿Cómo es posible?! La historia de Elvis* (Schössow, 2006).
 - Agertzen ez diren motak: Suzidioa eta eutanasia heriotza bortitzaren barruan sartuta joan beharko lirateke, baina, aipatzekoa da, hauek ez direla haur-albumetan agertzen. Hala ere, hau ezberdina izan daiteke nagusiagoentzat diren liburuetan. *Maldita adolescente* (Menéndez Ponte, 2001) liburuan adibidez suizidio bat agertzen da, baina liburu hau 12 urte baino gehiago dituzten nerabeei zuzenduta dago eta, beraz, Lehen Hezkuntzatik at gelditzen da.

2. Metodologia

Lan honen marko teorikoan gaiari buruzko bibliografia teorikoa landu da. Horretarako unibertsitateko katalogo onlinetik, Google Scholar nabigatzailetik eta JSTOR eta SciELO liburutegi digitaletatik gaiari buruzko bibliografia nagusia hartu dut nire eskema propioa sortzeko. Lanaren bigarren zatian, alde batetik, lanaren helburuekin bat zetorren biblioterapia mota definitu da eta informazio bilketarako marko teorikoan erabilitako metodologia berdina erabili da. Beste alde batetik, liburu baten analisisa egin da, edukiaren aldetik aztertuta eta bibliografian agertzen diren kontzeptu nagusiekin erlazionatuta. Lan hau Lehen Hezkuntzara bideratutako lan kualitatiboa da.

3. Lanaren garapena: Biblioterapia eta *Jakes eta Herio* ipuinarean analisisa

Marko teorikoan argi geratu da heriotza tabu bat dela gure gizartean eta, honekin amaitzeko, beharrezkoa dela heriotzarako heztea. Tresna asko erabili daitezke heriotzaren pedagogia lantzeko, batera erabili daitezkeenak eta ez direnak egokiagoak edo desegokiagoak izan behar, baina lan honetan hurbilketa hau literaturaren bidez egitea proposatzen dugu. Horretarako, heriotza psikologiaren ikuspuntutik aztertu dugunean aipatutako logoterapiaren printzipioak jarraitzen saiatuko gara. Atal horretan aurreratu dugunez, biblioterapia izango da, zehazki, oinarri modura erabiliko dugun tresna, izan ere, Frankl-ek, logoterapiaren

sortzaileak, biblioterapia krisi existentzialak prebenitzeko modu bat dela aldeztu zuen (Morandi Balcunas, 2008). Lehendabizi, biblioterapia zer den eta bere printzipioak zeintzuk diren azalduko dugu. Ondoren, *Jakes eta Herio* literatura-lana aztertuko ditugu eta, amaitzeko, biblioterapia eta nire iritzi kritikoa oinarri hartuta, heriotzaren gaia lantzeko proposa den edo ez ondorioztatuko dugu.

3.1. Biblioterapia

Biblioterapia bi modu ezberdinetan ulertzen da. Alde batetik, medikuntzako edo psikiatriako profesional batek gidatutako terapia modura ulertzen da eta, beste alde batetik, irakurlea gai zehatz bati buruzko liburu sorta baterantz gidatzea bezala ulertzen da (American Library Association, 2012). Hala ere, biblioterapia lehengoa bezala ulertzen dutenek ere bi mota ezberdintzen dituzte; biblioterapia klinikoa eta garapen pertsonalerako biblioterapia edo biblioterapia ebolutiboa. Bigarren hau, gure lanerako esanguratsuagoa dena, horrela definitzen du García Rodríguez-ek (2014):

Su objetivo es la utilización de la lectura en el desarrollo personal. La terapia puede ser grupal o individual, pero siempre voluntaria, y se puede aplicar de forma preventiva o correctiva en hospitales y clínicas, pero también en bibliotecas escolares y públicas, centros educativos, centros de acogida, etc. En este tipo de terapia interviene exclusivamente el bibliotecario que sin embargo, puede contar con la ayuda de otros profesionales del centro.

Aipu honetatik biblioterapia liburuzain espezializatu batek bakarrik bideratu dezakeela ondorioztatu dezakegu, baina beste autore batzuk ez datoz bat definizio honekin. Shepherd eta Iles-ek (1976), biblioterapia irakurmen orientazioa bezala ulertzen dutenak, adibidez, lan hau irakasle edo bibliotekari batek egin dezakeela adierazten dute. Haien esanetan, irakasle edo liburuzain batek ikasle bat arazo pertsonalen bat konpontzen, bizitzarako beharrezkoak diren gaitasunak garatzen edo autokontzeptua hobetzen lagundu dakioken liburu bat aurkitzen laguntzen duenean biblioterapia praktikan jarri du. Autore hauek haratago doaz eta biblioterapia erabiltzeko noizbait iradoki diren zenbait hezkuntza-betebeharren aurka agertu dira. Argudiatzen dutenez, irakasleak eta bibliotekariak ikasleen beharrak hautemateko egoera pribilegiatu batean daude eta, ondorioz, batzuetan eskatu zaizkien jakintzak; hala nola, haur eta gazte literaturari buruz, zientzia biologikoei buruz, psikologiari buruz, psikiatriari buruz eta soziologiari buruz, ez dira ezinbestekoak. Abdullah-ek (2002) ere aipatutako biblioterapia ulertzeko bi moduak definitzen ditu, “zer da biblioterapia?” galderari horrela erantzuten baitio: biblioterapia literaturaren erabilera da bi helburu posiblerekin; pertsonen haien arazo emozionalei, gaixotasun mentalei edo aldaketei aurre egiten laguntzea (Pardeck,

1994) edo aldaketa afektibo bat eta pertsonalitate garapen bat sorraraztea (Lenkowsky, 1987; Adderholdt-Elliott eta Eller, 1989). Hala ere, autore guztiak bat datoz hurrengoan; praktikan, biblioterapia, pertsonaren beharrei eta egoerari erantzuten duen irakurmen material egokia hautatzean datza (Shepherd eta Iles, 1976, Abdullah, 2002; García Rodríguez, 2014). Abdullah-ek (2002), gainera, García Rodríguez-ek (2014) egiten duen sailkapen berdina egiten du, berak “clinical bibliotherapy and bibliocounseling” eta “developmental bibliotherapy” izendatzen dituenak. Azken hau, gure lanerako interesekoa dena, irakasleek erabiltzen ohi dutena bezala definitzen du eta, beraz, bere aburuz biblioterapia irakasleek aurrera eramane dezaketen jardura bat dela ondorioztatzen dugu. Hau bera argiago geratzen da ondorioetan, “bibliotherapy is a potentially powerful method for school teachers and counselors to use on many levels and in every school grade” esaten duenean.

Biblioterapiaren definizio eta mota ezberdinak aztertu eta alderatu ondoren, “gure definizioa” zehaztuko dugu. Hau da, *Jakes eta Herio* aztertzerako orduan erabiliko dugun “biblioterapia” kontzeptua eta Heriotzaren Pedagogiaren barruan tresna moduan erabili daitekeela proposatzen dugun “biblioterapia” nola ulertzen dugun definituko dugu, normala denez, berdina izango dena bi kasuetan. Hemendik aurrera, biblioterapiaz hitz egiten dugunean, biblioterapia klinikoenetik urrun dagoen bati buruz hitz egingo dugu. Ez ditugu beste teoriak baztertzen edota baliogabetzen, baina ez datoz bat guk bilatzen dugunarekin. Hau da, lan hau Lehen Hezkuntzako Gradu Amaierako Lan bat izanda, ez zaigu interesatzen buruko gaitza duten pertsonen laguntza ematea helburu duen terapia batean sakontzea. Oso esanguratsua da, ordea, gure ikasgeletan dauden hurrei bideratutako biblioterapia bati buruz hitz egitea, Shepherd eta Iles (1976) eta Abdullah-ek (2002) egintzat jotzen duten moduan edo García Pintos-ek (1996) (logoterapiaren printzipioak jarraitzen dituen) posiblea dela esaten duen moduan. Logoterapiarekin jarraituz, gure ustez biblioterapiak logoterapiaren printzipioak jarraitzen ditu beti, aurreko paragrafoan aipatutako autoreek psikoterapia honi erreferentziarik ez egin arren. Logoterapiaren printzipio nagusia esanahia edo zentzuaren bilaketa da eta hori da biblioterapiaren bidez egiten dena, bereziki heriotza bezalako gai bat lantzen dugunean. Izan ere, zein da heriotzarekin daukagun arazoa? Heriotzarako Hezkuntzaren beharra azaldu dugunean argudiatu dugun bezala, guk arazoari zentzu bat aurkitu ez diogula eta horrek arazo pertsonalak eta krisi existentzialak sorrarazten dituela aldeztu dugu. Ondorio modura esango genuke, “gure biblioterapia” biblioterapia ebolutiboa edo garapen pertsonalerako biblioterapia dela, biblioterapia klinikotik urruntzen dena eta, beraz, ez dituen medikuntzako eta psikiatriko profesionalik behar. “Gure biblioterapia” hezkuntza arloan landuko da eta

irakasle bat izango da jardueraren gidari (Shepherd eta Iles, 1976; Abdullah, 2002). Hala ere, Heriotzaren didaktikaren inplementazioaz hitz egin dugun atalean aipatu den moduan, gai hau lantzeko beharrezkoa da diziplinarteko talde bat. Ondorioz, ondo legoke eskolako profesional gehiago, hala nola, eskolako psikologoa edo orientatzailea, jarduera honetan parte hartzea (jarduera hau aipatutako atal horretan definitutako proiektuaren alderdi bat izan ahalko litzatekeela ulertzen dugu). Horrez gain, biblioterapiaren bidez, atal berdinean azaltzen ziren funtzio prebentiboa eta paliatiboa landu daitezkeela zehaztu nahi dugu (García Rodríguez, 2014). Amaitzeko, argi utzi nahi dugu bat gatozela Abdullah-k (2002) esaten duenarekin; badakigu biblioterapiak badituela gabetasunak eta ezin dugula gehiegi balioetsi, baina, berak bezala, potentzial handia duen eskola irakasleentzako metodo bat dela uste dugu. Are gehiago, bereziki heriotzaren gaia lantzeko aproposa den tresna bat dela ulertzen dugu.

3.2. Ipuinaren azterketa: *Jakes eta Herio*

Jakes eta Herio 3 eta 7 urte tarteko umeei bideratutako ipuin irudiztatua da. Ondorioz, Lehen Hezkuntzaren kasuan, lehenengo ziklora bideratuta egongo litzateke. Testua Tim Bowley-k idatzi du eta marrazkiak Natalie Pudalov-ek egin ditu (Txalaparta, 2019). Hasteko, istorioaren laburpen txiki bat egingo dugu, geroago datorren ikerketa eta hausnarketa errazago eta hobeto uler dadin:

Jakesen ama ez du sendabiderik: Heriotza bere bila dator. Jakes, mutiko azkarra denez, Herio flasko batean giltzaperatuta uztea lortzen du. Hurrengo egunetan mundua arraro jokutzen hasten da: ezer ez da hiltzen eta, ondorioz, jateko gutxiegi eta halere ia denetik gehiegi dago. Amak, gertatutakoaz jabetzean, Herio askatzeko eskatzen dio Jakesi. Honek, azkenean, hori egiteak bere ama hiltzea suposatzen badu ere, beste aukerarik ez dela ikasiko du.

Argumentuari dagokionez, istorio hau tradiziozko ipuin eskoziar batean oinarrituta dago, “Death in the Nut” izenekoa (Meza, 2016; Martin, d.g.). Jatorri berdina duten beste bi liburu daude, “La madre de Jack” eta “El señor Muerte en una avellana” deitzen direnak (AFINION. Niños con cancer, 2019). Dirudenez, umea, tradizio oraleko “Jack eta baba magikoak” ipuin ingeles ospetsuan agertzen den pertsonai berdina da. Ipuin honen ingelesezko izenburu originala “Jack and the Beanstalk” da eta guk aztertzen dugun ipuinaren bertsio originalean Jakes “Jack” deitzen da eta bere etxea “Beanstalk”. Are gehiago, Jack heroi edo ezaugarri finkoak dituen pertsonai kornubiar eta ingeles arketipikoa da eta, ondorioz, hainbat eta

hainbat tradiziozko ipuinetan agertzen da (The Center for Children's Books, 2014). Ipuinaren jatorria aztertuta, heriotza motaz hitz egingo dugu orain. *Jakes eta Herio*-n agertzen den heriotza mota gaixotasunaren ondoriozko heriotzaren barruan egongo litzateke, izan ere, testuan hurrengo esaten da: “Jakesen ama hilzorian zen. Medikuek erremediorik ez zegoela esan zuen”. Motak ezberdintzen genituen atalean azaldu dugunez, mota honetako heriotzak agertzen diren idazlan gehienetan ez da informazioa sakonki aztertzen, ez da gaixotasunari buruzko xehetasunik ematen. Kasu honetan ere, hori bera gertatzen da. Honen arrazoia lanari izaera errealista ematen dioten eta haurrek kontakisunarekin gehiegi identifikatzea edo inplikatzeari eragiten duten zehaztasunak alde batera usteko nahia izan daiteke (Arnal, 2011). Istorio guztien helburu komun bat irakurleak edo entzuleak entretenitzea da, baina, horrez gain, istorio honek beste helburu zehatzago bat dauka, heriotzaren beharra ulertaraztea dena hain zuzen ere. Ondorioz, ipuin honen barruan ikaskuntza bat dagoela esan dezakegu. Argumentuaren analisiareki jarraituz, istorioa inguratzen duen guztia hobeto ulertzeko, pertsonaiak aztertuko ditugu:

- Jakes: Semearen papera oso gogorra da. Heriotza atzipetzea lortzen du, baina horrek ondorio txarrak ditu. Amak mundua hain arraroa egotearekin zerikusirik daukan galdetzen dionean Jakesek baietz esan behar du. Berak, amak bezala, oso aukeraketa zaila egin behar du, hau da, guztien ongizatearen eta bere amaren bizitzaren artean aukeratu behar du. Bera da, gainera, Herio libre utzi behar duena eta, beraz, hau egiterakoan, zeharkako modu batean bere ama hiltzen du.
- Heriotza: Heriotza ez da gaiztoa balitz moduan aurkezten. Ez dira adjektibo txarrak erabiltzen hau deskribatzeko eta, jatorria dela esatea gehiegi izan daitekeen arren, behintzat manera onak dituela esan dezakegu. Bere itsura, ordea, ez da oso atsegina. Ipuinaren amaieran Herio bera da bere garrantzia eta beharra azaltzen diona Jakesi: “Beharbada orain ulertuko duzu ez naizela bizitzaren etsai. Txanpon beraren bi aldeak gara: ni gabe, bizitzarik ez”. Hitz hauekin argi ikusten dugu ipuinak Herio pertsonai maltzur bat ez dela adierazi nahi duela eta, ondorioz, heriotza ere ez. Orokorrean, heriotza pertsonifikatuta agertzen denean bi funtzio bete ditzake. Batzuetan heriotza hil behar den pertsonarengana doa, bisita bat egiten dio. Kasu hauetan, askotan, trikimailuak edo amarruak erabiltzen dira Heriotzaren bisita ekiditeko. Hori da *Jakes eta Herio* ipuinean gertatzen dena. Beste batzuetan, ordea, Heriotza laguntzaile bat besterik ez da, arima eta gorputzaren arteko azken loturak mozten dituen eta hildakoa beste mundura gidatzen duena (Muerte, 2019). Azken hauek “psicopompo” deitzen dira gaztelaniaz, *psyche* “arima” eta *pompós* “gidari” hitz grekoetatik datorrena, eta ez dute kontrolik pertsonaren

bizitzarengan (“Psicopompo”, 2015). Ipuinean Herio oso botere handiko izaki baten moduan aurkezten da; zerua estali dezake handitzen bada, hondartza astindu dezake bere oihuekin eta txiki-txikia egin daiteke. Hala ere, harrigarria bada ere, behin flaskoan sartuta eta hau itxita ezin da handik atera.

- Ama: Ama ipuinean agertzen den guraso bakarra da eta bere papera funtsezkoa da istorioan, hiltzorian dagoelako etortzen baita Herio bere bila. Hala ere, garrantzitsuena ez da hori berez, guztien ongizatea bizirik jarraitzearen aurretik lehenesten duela baizik. Amak heriotza libre uzteko eskatzen dio Jakesi eta, horrek, heriotza bere bila etortzea ahalbidetzea esan nahi du ere. Amak munduaren ongizatea eta oreka aukeratzen du, ondorioa heriotza eta bere semea umezurtz uztea bada ere.
- Bigarren mailako pertsonaiak: Hemen harakina eta herriko jendea sartuko genituzke. Hauek ez dute istorioan erabakirik hartzen, ez dute istorioaren norabidea aldatzeko ahalmenik.

Hizkuntzari dagokionez, nire aburuz, *Jakes eta Herio* ipuinean erabiltzen den hizkuntza konplexuegia da 3 eta 7 urte tarteko umeentzat. Adibidez, “*xingarra*” edo “*punpa egin*” ez dira hiztegi sinplea. Hala ere, ez da hiztegiaren kontua bakarrik, liburuak nafarroan erabiltzen diren zenbait estruktura gramatikal erabiltzen ditu, esaldi hauetan ikus ditzakegunak; “*izugarritzko oihua egiten ahalko duzu*”, “*zerua osorik betetzen ahalko duzu*”, “*sartzeko gai izanen zara*” edo “*zopa goxo-goxoa eginen dugu*”, eta onek ulermena zaildu dezake. Itzulpena, beraz, ez dago osorik Euskara Batuan eginda. Hizkuntzaren zailtasunak alde batera utzita, ikus dezagun orain zeintzuk diren heriotzaren inguruan hitz egiteko erabiltzen diren hitzak edo esaldiak:

- Hiltzearen ingurukoak: amari buruz hitz egiterakoan; “*hiltzorian*”, “*ez zegoen erremediorik*”, “*aurpegian irribarre bat zuela, hilda*”, animaliei buruz hitz egiterakoan; “*hil*”, “*sestatu*”, “*lepoa moztu*”, barazkiei buruz hitz egiterakoan; “*atera*”, “*bildu*”.
- Jakesen sentimenduak bere amaren heriotzaren inguruan: “*malkoei eutsi nahian*”, “*goibel*”, “*adore bila*”, “*begiak malkoz beterik*”, “*ezin zuen hitz egin ere*”.
- Heriotzaren jarrera deskribatzeko: “*adeitsuki*”.
- Heriotzaren itxura deskribatzeko: “*Irudi garai bat; kapa beltza zeraman, aurpegia txano baten azpian ezkutaturik*”.

Hizkuntzarekin jarraituz, euskarazko itzulpen honetan izen propioak aldatu egin dira; “Jack” deitzen zen umea “Jakes” deitzen da eta “Beanstalk” deitzen zen etxea “Babarruena”

izendatu dute. Horrez gain, “la Muerte” “Herio” modura itzuli dute, izan ere, “Herio” letra larriz idatzi ohi da eta, beraz, heriotzaren pertsonifikazioarekin lotuta dago. Istoria kontalari orojakile batek kontatzen du hirugarren pertsonan. Horrez gain, elkarrizketa asko agertzen dira, letra lodiarekin adieraziak daudenak.

Marrazkiekin hasteko, nire iritzi kritikoa emango dut. Nire aburuz, marrazki hauek oso bereziak eta liluragarriak dira, baina beldurgarriegiak dira heriotzari buruz hitz egiten duen eta 3-7 urteko haurrei bideratuta dagoen liburu batentzako. Ez dut egokia ikusten burua moztuta duen oilo baten irudia (1. eranskina), pertsona baten gainean arrautzak jartzen dituen eltxo erraldoi baten irudia (2. eranskina) edo ama hilaren irudia agertzea (3. eranskina). Nire ustez, honek beldurrak sortu ditzake haurrengan. Nire iritzia eman ondoren, jarrai dezagun azterketa objektiboarekin. Hasteko, heriotza nola irudikatu duten deskribatuko dugu. Herio beltza den txanodun kapa edo tunika bat daraman eskeleto moduko bat bezala irudikatuta agertzen da. Lehenengo marrazkian (4. eranskina), aurpegia edo, hobe esanda, buru-hezurra atso zahar baten aurpegiaren itsura duen maskara baten atzean ezkututzen du. Hurrengo irudietan, batzuetan marrazkian agertzen bada ere, Heriok ez darama maskara jantzita. Oso handiak diren esku zuriak ditu, atzamar luze eta puntazorrotzekin. Lehenengo irudian, esku batekin maskara heltzen du eta bestearekin tunikaren barrenera josita duen hari gorri luze bat. Hari gorri hau hil behar den pertsonarekin lotzen duela ulertzen da. Tunikak zuriak eta beltzak diren galtzerdi marradunak eta punta zorrotz batean amaitzen duten zapata gorriak daramatzala ikusten uzten digu. Burezurra eta txanoaren artean zuhaitz adar bat dirudiena dauka. Batzuetan txoriren bat edo tximeletak pausatua daramatza adar horretan. Ilea imitatzen saiatzen dela esan daiteke. Orokorrean, heriotzaren irudi hau bat egiten du XV. mendetik aurrera heriotza izaki antropomorfo baten itxurarekin irudikatu denean eman ohi izan den irudiarekin, hau da, kapa eta txanoa daraman figura eskeletiko baten moduan irudikatu da (Muerte, 2019). Behin heriotzaren irudia aztertuta, haren inguruan agertzen diren objektuak eta haien sinbologia ikertuko dugu:

- Arrosa beltza: Arrosa beltzak zentzu ezberdinak izan ditzake eta horietako bat, ipuin honetan ematen dena hain zuzen ere, heriotza edo dolua da. Natalie Pudalov-ek arrosaz bete ditu liburu honetako orriak eta oso argi utzi du arrosa beltza hilzorian edo hilda dagoen norbait adierazteko erabiltzen duela. Horrela, istorioaren hasieran arrosa beltz bat dago Babarruenea etxearen gainean. Jakes heriotza ontzitxo batean itxita uzten duenean eta etxera bueltatzen denean, ordea, arrosa gorri bihurtzen ari dela ikus dezakegu.

Azkenik, Jakes Herio askatu ondoren etxera bueltatzen denean arrosa berriz ere beltz bihurtu dela ikus dezakegu.

- Beleak: Kultura eta erlijio batzuentzat, hala nola, budistentzat, eskandinaviarrentzat eta Ipar Amerikako tribu batzuentzat, belea gauza positiboen ikurra da. Ez da berdina gertatzen, ordea, gure gizartean ezta ipuin honetan ere ez. Beleak eta heriotzaren arteko asoziazioa antzinatik dator eta hau ulertzeko esanguratsuak dira Bibliatik eta mitologia greko eta erromatarretik jasotako istorioak. Biblian belea gaiztakeriaren eta ezpurutasunaren adibide modura agertzen da zenbait alditan. Inkisizioaren garaian gauza txarren seinale eta heretikoaren ikur modura ikusten zen. Uholde nagusian, Noek bele bat eta uso bat bidali zituen lur berrien bila. Esaten denez, beleak janari asko aurkitu zuen eta han gelditu zen. Hori dela eta, usoa itxaropenaren sinboloa bihurtu zen. Mitologia greko eta erromatarrean beleak berri onak eta txarrak iragartzen zituen. Elezaharrak dioenez, hasieran bele guztiak zuriak ziren, baina bele batek Apolok agindutako misioan huts egin zuen eta zigor modura luma zuri guztiak erre zizkion, ondorengo guztiei luma beltzez jaiotzera madarikatuz (“Cuervo”, 2013). *Jakes eta Herio* liburuan beleak heriotza laguntzen dute, hau da, berarekin doaz. Hala ere, ez dira bera agertzen den guztietan agertzen, baina leku garrantzitsu bat dute ilustrazioetan. Ondorio modura, ipuin honetan beleak heriotza sinbolizatzen dutela baieztatu dezakegu.
- Hari gorria: Kultura askotan gizakion bidea gidatzen duen hari astronomiko bat dagoela ulertu dute. Horrela gertatzen zen mexikoko kultura askotan eta mitologia grekoan, erromatarrean, baltikoan eta eskandinaviarrean. Grekoan Moirak zeuden, erromatarrean Parcak, baltikoan Laimak eta eskandiviarrean Nornak. Hiru emakume hauek, ezberdintasun batzuekin, jaiotza, bizitza eta heriotzaren irudiak ziren. Patuaren jainkosak ziren eta hari baten bidez (“bizitzaren haria”) gizakien bizitza gidatzen zuten jaiotzatik heriotzara (Pintado, 2012). Argi dago, beraz, *Jakes eta Herio*-n agertzen den ari gorri hori bizitza edo patuaren ikurra dela. Gainera, Moirak egiten zuten bezala, heriotzaren momentuan haria mozten dela adierazten duen marrazki bat agertzen da liburuaren kontrazalean (5. Eranskina).
- Maskara: Maskarak ez du sinbologia zehatzik kasu honetan, baina hiltzearen erritu eta zeremonietan asko erabiltzen den elementu bat da kultura askotan (Distintos en la igualdad, d.g.).

Amaitzeko, biblioterapiaren printzipioak jarraituz, galdera garrantzitsuenari erantzuten ahaleginduko gara: *Jakes eta Herio* aproposa da heriotzaren gaia lantzeko? Horretarako, beste

lau galdera erantzun beharko ditugu lehenengo: 1) Identifikazioa eman daiteke?; 2) Heriotzari zentzu bat emateko balio du?; 3) Haurren beharrei erantzuten dio?; eta 4) Bilatzen denaren kontrakoa lortu dezake? Identifikazioarekin hasteko, Shepherd eta Iles (1976) azaltzen dutena kontuan hartuko dugu. Autore hauen esanetan, inguru behartsu batean bizi den ume elbarri bati familia dirutsu batean bizi den ume elbarri bat agertzen den liburu bat ematen badiozu seguru aski ezberdintasun hauek identifikazioa eragotziko dute. *Jakes eta Herio* liburuan ez dira datu gehiegirik ematen. Jakes (haurrak berarekin identifikatu daitezken pertsonaia) adin zehatz gabeko mutil azkarra da. Marrazkiak begiratuta 3 urte baino gutxiago eta 12 baino gehiago ez dituela ondorioztatu dezakegu. Berari buruz dakigun beste guztia, ama duela, herri batean bizi dela, bere etxea hondartza ondoan dagoela eta baratz bat duela da. Jakes pertsonai nahiko orokorra bada ere, istorioan zehar egiten dituen gauza batzuk gaur egungo umeen errealitatetik oso urrun daudela esan dezakegu. Amak txikia den semea harategira eta baratzera joatea eskatzea nahiko arraroa da gaur egungo gizartean eta, are gehiago, harakinak txerria eta oiloa hiltzen saiatzea eskatzea eta umeak naturaltasun osoz hori bera egitea (lortzen ez bada ere). Ondorioz, identifikazioa ematea nahiko zaila dela ondorioztatu dezakegu. Bigarren galderari erantzutea oso erraza da. Bai, zentzu bat ematen dio heriotzari. Heriok berak azaltzen du ipuinaren amaieran: *“Beharbada orain ulertuko duzu ez naizela bizitzaren etsai. Txanpon beraren bi aldeak gara: ni gabe, bizitzarik ez”*. Hau da, heriotzari gabe ez genuke janaririk izango eta goseak jota egongo ginateke, ia denetarik gehiegi egongo legoke eta munduaren oreka apurtu egingo litzateke. Hirugarren galderaren erantzuna baietz da. Marko teoriko osoan zehar argi utzi dugu gizakion behar bat dela heriotzaren tabuarekin amaitzea eta bereziki garrantzitsua dela haurtzaroan behar hau asetzea praktika desegokiak (gehien bat ezkutaketa eta lanketa eza) errepikatzea ekiditeko. Amaitzeko, laugarren galdera erantzun dezagun: bilatzen denaren kontrako lortu dezake ipuin honek? Hau da, umeen heriotzarenganako beldurra indartu dezake? Nire ustez bai. Aurreko ataletan azaldu dugunez istorioan agertzen diren pertsonai nagusiak jokatzen duten papera oso gogorra da. Berezi gogorra da Jakesek bizitzen duena eta egitera behartuta dagoena eta hau da, esan dugunez, umeak islatzen diren pertsonaia. Horrez gain, marrazkien atalean azaldu denez, nahiko gogorrak eta desatseginak diren marrazkiak agertzen dira, heriotzarekin amesgaietoak izatea sorrarazi ditzaketena⁴. Gure kasuan, lan hau Lehen Hezkuntzara bideratzen dugunez, 5-7 urte tarteko umei bideratuta egongo litzateke ipuina eta, hala ere, ez zaigu aproposa iruditzen, nahiz eta beste bi baldintzak bete.

⁴ “Si el escritor no es capaz de inmunizar al lector contra la desesperación, ha de evitar al menos inocularle la desesperación.” (Frankl, 1984, 100. or., García Pintos-ek aipatuta, 1996, 19. or.)

4. Ondorioak

Heriotzaren tabuarekin amaitzeko eta belaunaldiz belaunaldi transmititu diren jarrera saiheskor eta mitifikatzaileak ez errepikatze beharrezkoa da hurrekin heriotzaren inguruan lanketa bat egitea. Horretarako, literatura oso tresna baliagarria izan daiteke. Gure ikasgeletan dauden haurrei bideratuta dagoen, eskola diziplinarreko talde baten laguntzarekin irakaslea jardueraren gidaria izatea ahalbidetzen duen, zentzuaren bilaketa bermatzen duen eta funtzio prebentiboa eta paliatiboa lantzen duen garapen pertsonalerako biblioterapia batek heriotza ulertzen eta onartzen lagun dezake. Ondorioz, liburu egokien aukeraketa ezinbestekoa da. 1) Identifikazioa eman daiteke?; 2) Heriotzari zentzu bat emateko balio du?; 3) Haurren beharrei erantzuten dio?; eta 4) Bilatzen denaren kontrakoa lortu dezake? galderei modu egoki batean erantzuten duten liburuak aproposak izango dira heriotza hurrekin lantzeko. *Jakes eta Herio* liburuak, ordea, ez ditu beharrezko ezaugarriak betetzen, izan ere, ez ditu era egokian lehenengo eta azkenengo galderak erantzuten. Hau zehaztuta, hasieran planteatutako helburuak lortu direla eta lana sorrarazi duten galderak behar den bezala erantzun ditugula ondorioztatu dezakegu.

Lan hau beste askoren hasiera izan daiteke. Honi jarraipen bat emateko, heriotzari buruz hitz egiten duten beste zenbait haur eta gazteentzako liburu aztertu daitezke lan honetan jorratutako printzipioen arabera heriotzaren gaia lantzeko aproposak diren edo ez ondorioztatzeko. Jarraitzeko, egokia dela erabaki den liburu batekin unitate didaktiko bat sortu daiteke, praktikara eraman eta emaitzak aztertu. Horrelako, zenbait kasu aztertu ondoren, emaitzak alderatu daitezke eta Heriotzarako Hezkuntzan biblioterapia praktikoki baliagarria den ondorioztatu. Emaitza positiboa izatekotan, literatura ardatz modura duen eta lan honetan azaldutako printzipioak jarraitzen dituen proiektu bat eratu daiteke, ondoren eskoletan ezarri ahalko litzatekeena. Hau, ekarpen handia izango litzateke Hezkuntzaren Pedagogia eta Heriotzarako Hezkuntzaren arloan.

5. Erreferentzia bibliografikoak

Abdullah, M. H. (2002). *Bibliotherapy. ERIC Clearinghouse on Reading, English, and Communication Digest*, 177. Hemendik eskuratua 2019ko maiatzean:

<https://www.ericdigests.org/2003-4/bibliotherapy.html>

AFANION. Niños con Cáncer. (2019ko apirilaren 17a). ENCuentos - Jack y la muerte.

Hemendik eskuratua 2019ko maiatzean:

<http://www.afanion.org/portal/actualidad/index.aspx?s=10>

- American Library Association. (2012). *Bibliotherapy*. Hemendik eskuratua 2019ko maiatzean: <http://www.ala.org/tools/atoz/bibliotherapy>
- Arnal Gil, T. (2011). *El tratamiento de la muerte en el album infantil: Obras publicadas en castellano (1980-2008)*(Doktorego-tesia). Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Espainia.
- BBC Mundo. (2018ko apirilak 26). Cuáles son las 5 fases del duelo y por qué no es algo que necesariamente tienes que dejar atrás. *BBC News Mundo*. Hemendik eskuratua 2019ko apirilean: <https://www.bbc.com/mundo/noticias-43893550>
- Bowley, T. (2019). *Jakes eta Herio*. Tafalla, Espainia: Txalaparta
- Cantero García, M. F. (2013). La educación para la muerte. Un reto formativo para la sociedad actual. *Psicogente*, 16(30), 424-438.
- Cuervo. (2013). *Tanatopedia Última*. Hemendik eskuratua 2019ko maiatzean: <https://www.altima-sfi.com/es/tanatopedia/cuervo/>
- De Miguel, J. (1995). "El último deseo": Para una sociología de la muerte en España. *Reis: Revista Española De Investigaciones Sociológicas*, (71/72), 109-156.
doi:10.2307/40183865
- Distintos en la igualdad. (Datarik gabe). *Mascaras del Mundo*. Hemendik eskuratua 2019ko maiatzean:
<http://distintosenaigualdad.org/imagenes/documentos/cuadernillos%20talleres/exposicion%20mascaras%20p.pdf>
- Eros y Thanatos. (2009ko abuztuaren 31a). Hemendik eskuratua 2019ko maiatzean:
http://www.estrellaiquique.cl/prontus4_nots/site/artic/20090831/pags/20090831001019.html
- Gabella Nicolau, M. (2014). *El duelo vivido desde la niñez: Particularidades del duelo en la infancia* (Gradu amaierako lana). Universitat de les Illes Balears, Espainia. Hemendik eskuratua 2019ko apirilean:
<http://repositori.uib.es/xmlui/bitstream/handle/11201/892/GABELLA%20NICOLAU%20MARTA.pdf?sequence=1>
- Gala León, F.J., Lupiani Jiménez, M., Raja Hernández, R., Guillén Gestoso, C., González Infante, J.M., Villaverde Gutiérrez, M^a. C., eta Alba Sánchez, I.. (2002). Actitudes psicológicas ante la muerte y el duelo: Una revisión conceptual. *Cuadernos de Medicina Forense*, (30), 39-50. Hemendik eskuratua 2019ko apirilean:
http://scielo.isciii.es/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1135-76062002000400004&lng=es&tlng=pt


- García Pintos, C. (1996). *La logoterapia en cuentos: el libro como recurso terapéutico*. Buenos Aires, Argentina: San Pablo.
- García Rodríguez, A. (2014). Biblioterapia. In *DINLE: Diccionario Digital de nuevas formas de lectura y escritura*. Universidad de Salamanca. Red Internacional de Universidades Lectoras. Hemendik eskuratua 2019ko maiatzean:
<http://dinle.usal.es/searchword.php?valor=Biblioterapia>
- Herrán, A. de la, eta Cortina, M. (2007). Fundamentos para una pedagogía de la muerte. *Revista iberoamericana de Educación*, 41(2), 1-12.
- Martin, R. (Datarik gabe). Death in the Nut. [blog batean argitaratua]. Hemendik eskuratua 2019ko maiatzean: http://www.tellatale.eu/tales_death_nut.html
- Meza, A. (2016ko uztailaren 9a). Cuentos para explicar la muerte. [blog batean argitaratua]. Hemendik eskuratua 2019ko maiatzean:
<https://amigoslarevista.com/2015/10/14/cuentos-para-explicar-la-muerte/>
- Morandi Balcunas, V. (2008). *La logoterapia y la biblioterapia: descubriendo el sentido de la vida a través de la lectura* (Doktorego-tesia). Instituto de Logoterapia del Uruguay Viktor E. Frankl, Uruguai.
- Pintado, A. P. (2012). El tejido de la vida: rimuwaka y la creación de la humanidad. *Hilando al norte. Nudos, redes, vestidos, textiles*, 89-108.
- Psicopompo. (2015). *Tanatopedia Última*. Hemendik eskuratua 2019ko maiatzean:
<https://www.altima-sfi.com/es/tanatopedia/psicopompo/>
- Sáiz Ripoll, A. (2010). "¡Un día volveremos a encontrarnos!" Aproximación a la muerte en la literatura infantil y juvenil. *Espéculo: Revista de Estudios Literarios*, (45), 46. Hemendik eskuratua 2019ko maiatzean:
<http://www.biblioteca.org.ar/libros/152468.pdf>
- Sanz Andrea, C. (2018). La muerte y los procesos de duelo. *Instituto Superior de Estudios Psicológicos*. Hemendik eskuratua 2019ko apirilean: <https://www.isep.es/actualidad-psicologia-clinica/la-muerte-y-los-procesos-de-duelo/>
- Shepherd, T., eta Iles, L. B. (1976). What Is Bibliotherapy? *Language Arts*, 53(5), 569-571. Hemendik eskuratua: <http://www.jstor.org/stable/41404208>
- The Center for Children's Books. (2014). The Folklore Tradition of Jack Tales. *Graduate School of Library and Information Science University of Illinois at Urbana-Champaign*. Hemendik eskuratua 2019ko maiatzean:
<https://web.archive.org/web/20140410004237/http://ccb.lis.illinois.edu/Projects/storytelling/jsthomps/tales.htm>

Txalaparta. (2019). Jakes eta Herio. Hemendik eskuratua 2019ko maiatzean:

<https://www.txalaparta.eus/es/libros/jakes-eta-herio>

ERANSKINAK

1. Eranskina: Burua moztuta duen oiloa



2. Eranskina: Pertsona baten gainean arrautzak jartzen dituen eltxo erraldoia



3. Eranskina: Ama hilaren irudia



4. Eranskina: Heriotza agertzen den lehenengo marrazkia



5. Eranskina: Hari gorria moztuta



6. Eranskina: Lanaren laburpena

Heriotza nola ulertzen dugun eta berarekin daukagun erlazio mota mendeetan zehar aldaztuz joan da. Hainbat faktore izan dira aldaketa hauen eragile, azken mende honetako garrantzitsuenak heriotzaren ospitalizazioa, heriotza-tasaren beherakada eta gizarte eredu hedonista izanda. Horiek izan dira, gehien bat, gaur egun heriotzaren aurrean ditugun jarrera sahieskor eta mitifikatzaileen arrazoia. Heriotzari buruz daukagun kontzeptuak gai hau inguratzen duen guztia psikologikoki nola eragiten gaituen baldintzatuko du, ondorioz, heriotzean izan dugun gizarteratzeak (edo gizarteratze ezak), hau da, bizi garen gizarteak edo kulturak, gure heriotzaren eta besteen heriotzaren aurrean dauzkagun jarrera eta sentimenduetan eragina izango du. Hala ere, badaude baldintzatzen gaituzten beste eragile batzuk, hala nola, bakoitzaren istorio pertsonala, aldaketei eta banaketei aurre egiteko daukagun estiloa eta heriotzaren esanahiari buruz daukagun jakintza edo kontzientzia. Hori dela eta, azken hau adinarekin oso lotuta doanez, haurren eta nerabeen dolua berezitasun batzuk izango ditu. Hala ere, argi dago lanketa bat eginez haurrek gaiari buruz duten jakintza eta kontzientzia garatu daitekela. Baina, zergatik da hain beharrezkoa Heriotzarako Hezkuntza? Gaur egungo gizartean heriotza tabu bat da; ez da berataz hitz egiten, bere errealitatea gogoratzen digun edozer baztertzen da eta, noski, ez da haren inguruan hausnarketa sakonik egiten, are gehiago, heriotzean pentsatzea gaixo-esperientzia bat moduan ikusita dago. Ezagueraz bizitzeko, gizarte moduan aurrera egiteko eta dolua modu osasuntsuago batean bizitzeko heriotzaren tabuarekin amaitu behar dugu. Hau, ordea, ez da lan erreza. Helduek ez dute heriotzaren tabua gainditu; ez dute heriotzari zentzu bat ematea lortu, izan ere, ez dute haren inguruan gogoetarik egin, hau da, ez diote heriotzari “aurre egin” gaiari beldurra diotelako, haiek ere heriotzaren tabuan heziak izan baitira. Hori dela eta, Heriotzaren Pedagogia bat aurrera eramateko, ezinbestekoa da, lehenik eta behin, hezkutzaren profesionalak gai honen inguruan hausnartzea eta ikasteko eta formatzeko prest egotea. Beharrezkoa da gaia curriculumeko alderdi guztietan txertatzen duen proiektu bat eta hau aurrera eramango duen disziplinarreko talde prestatu bat sortzea, heriotzak naturalki dagokion lekua har dezan. Proiektu honek, gainera, heriotza modu prebentiboan eta paliatiboan landu behar du. Horrez gain, gurasoen eta haurretan eragina duten beste pertsonen inplikazioa eta prestakuntza beharrezkoa da umeek belaunaldiz belaunaldi transmititu egin diren jarrerak errepikatu ez ditzaten. Honek guztiak literaturan isla izan du ere. Haur eta gazte literatura klasikoan heriotza asko jorratzen zen gai bat zen baina, XX. mendean heriotzak garrantzia galtzen du eta haur eta gazte literaturatik kanpo gelditzen da. Azken berrogei urte hauetan,

ordea, gutxinaka bada ere, heriotzaz hitz egiten duten idazlan kopurua handitzen hasi da eta, hau, hezkuntza-eskaera eta eskaera sozialaren ondorio dela esan dezakegu. Esan dugunez, heriotzarekin daukagun arazoaren oinarria zentzu bat aurkitu ez diogula da eta hori bera da logoterapiak esaten duena, gauzei aurre egiteko zentzu bat bilatu behar diegula. Logoterapiak biblioterapia hau egiteko erabili daiteken tresna moduan aurkezten du. Biblioterapiak, behintzat guk hemen zehaztu eta deskribatutakoak, liburuak arazo pertsonalen bat konpontzeko, bizitzarako beharrezkoak diren gaitasunak garatzeko, krisi existentzialak prebenitzeko edo autokontzeptua hobetzeko tresna moduan erabiltzen ditu. Ondorioz, heriotzaz hitz egiten duten idazlan kopuruaren handitzea aprobetxatu eta gai hau jorratzeko literatura erabili dezakegu. Lan honetan, “Jakes eta Herio” liburua helburu honetarako baliagarria den aztertu dugu. Identifikazioa eman daiteke?; Heriotzari zentzu bat emateko balio du?; Haurren beharrei erantzuten dio?; eta Bilatzen denaren kontrakoa lortu dezake? galderei erantzun ondoren, ezetz ondorioztatu dugu. Alde batetik, Jakesek gaur egungo umeen errealitatetik nahiko urrun dauden egoera batzuetan parte hartzeak identifikazioa nahiko zailtzen duelako eta, beste alde batetik, bilatzen denaren kontrakoa eragin dezakeela ondorioztatu dugulako. Hau da, istorioak eta marrazkiek haurren heriotzarenganako beldurra handitu dezaketela uste dugu. Hori guztiagatik, nahiz eta beste galderen erantzuna positiboa izan, “Jakes eta Herio” heriotzaren gai jorratzeko liburu desegokia dela erabaki dugu.